

**2023KO MARTXOAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren seian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2023ko otsailaren 27an egindako bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 9 zenbakidun fakturen zerrenda, EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA SEI euro ETA LAUROGEITA BOST zentimokoa (139.166,85 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- PLAKA FOTOVOLTAIKOEN KONTRATU ALDAKETAREN HASIERA

San Prudentzio ikastetxean, Arerian eta frontoian, autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko kontratua aldatzeko beharra adierazi dio Udal hirigintza teknikariak kontratazio organoari.

Autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko lanen esleipena 2022ko urriaren 25ean Alkatetzaren ebazpen bitartez erabaki zen eta lan hauek Tapia Instalazio Elektrikoak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion EHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BAT euro eta HOGEITA BAT zentimo (131.581,21 €) gehi BEZari dagokion HOGEITA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABI euro eta BOST zentimoko (27.692,05 €) prezioan.

Kontratua 2022ko azaroaren 29an formalizatu zen.

Obra-zuzendaritza zerbitzua burutzeko IP21 Ingenieria de Proyectos S.L. enpresa kontratatu zen.

Lanak burutzeko epea 120 egun naturalekoa da, eta lan hauek amaitzeko epea 2023ko martxoaren 29an amaituko da.

San Prudentzio ikastetxearen eraikinean egin beharreko plaka fotovoltaikoen instalakuntzari dagokionean, hirigintza teknikariaren arabera, ikastetxea irekita egonik lanak burutzeak arrisku handia sortzen du ikastetxearen aktibitatean eta beraz plaken instalazioa Aste Santuko oporraldian, apirilaren 3tik apirilaren 16a bitartean, egitea proposatzen du. Honen ondorioz, lanak 60 egun naturaletan luzatzea proposatzen du hauek segurtasun osoz eta ikastetxearen aktibitatean eraginik izan gabe burutu ahal izateko.

Kontratuaren epe luzapen honek ez du kontratuaren prezioan aldaketarik eragingo, Udal teknikariaren txostenak dioenaren arabera.

Aipatutako inguruabarren ondorioz, instalazio fotovoltaikoak hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren aldaketa beharrezkoa jotzen da.

Teknikariak bere txostenean jasotzen duen moduan, aldaketa ez da funtsezkoa.

SPKLren 205. artikulua honako hau xedatzen du funtsezko aldaketen inguruan:

"Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan.

Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:

1.a) Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratistari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zitzaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.


2.a) Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a) Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.

Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:





- (i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuaren kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuaren kasuan; edo, bestela, 20. artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzen dena gainditzea.
- (ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentearen izapidetzea hasita egotea."

Udal teknikariaren txostenaren arabera, epe luzaketa honek kontratuaren hasierako objektua mantentzen du eta oreka ekonomikoan eta kontratuaren eremuan aldaketarik ez du sortzen. Hau guztiagatik, aldaketa ez dela funtsezkoa dio.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Udal hirigintza teknikariaren proposamenaren aurrean, Gobernu Batzordeak, aho batez, San Prudentzio ikastetxean, Arerian eta frontoian, auto-konsumo kolektiborako instalazio fotovoltaiakoak hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren aldaketa espeditenteari hasiera ematea onartu du.

IV.- AGAUNTZA ERREKAN, ELIZA ETA IKASTOLA ARTEAN OINEZKOEN PASABIDEAREN KONTRATAZIOAREN PRESAZKO ADIERAZPENA, PROIEKTUA, KONTRATAZIO ESPEDIENTEA, ETA LIZITAZIO DEIALDIA

Lazkaon, Ikastolaren eta elizaren artean, Agauntza ibaiaren gaineko pasabidearen proiektua ikusi da, Miguel Salaverriak eta Amaia Salaverriak, Salaberria Ingenieritza SL enpresakoek, idatzi dutena.

Obrak kontratatze berriazko klausula ekonomiko-administratiboaren plegua eta espeditentean jasotako justifikazio-memoria ikusi dira.

Kasu honetan, kontratazio-espeditentea presaz izapidetzea justifikatzen duten faktore garantzitsuak daude, SPKLren 119. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Idazkariak burutu duen justifikazio memorian jasotzen den bezala, izapidetzeko premia interes publikoagatik justifikatzen da, esleipen azkar bat egiteko. Izan ere, Udal honek kontratuaren xede diren obrak egiteko sinatu zuen aurreko obra-kontratua aurreko kontratistaren ez-betetze errudunagatik suntsitu behar izan zen, Alkatezaren 2023ko otsailaren 23ko 2023/141 Dekretuaren edukitik ondorioztatzen den bezala.

Ondorioz, Lazkaoko Udala behartuta dago lizitazio-espeditentea hau presako bidetik izapidetzera, SPKLren 213.6 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Kontuan hartu da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ez dutela honekin bat egiten, batetik objektiboki ez dutelako presazko prozedura bitartez tramitatzeko arrazoirik ikusten eta bestetik ez daudelako proiektuarekin ados.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzordeak, aldeko 3 botorekin (EAJ-PNV), 2 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honakoa erabaki du:

Lehenengoa.- Obrak prozedura irekiaren bidez egiteko lizitazio-prozedura onartzea, eta espedienteak presaz izapidetu behar dela adieraztea. Eta dagokion gastua baimentzea.

Bigarrena.- Onartzea Baldintza ekonomiko-administratibo partikularren agiria eta Miguel Salaverriak eta Amaia Salaverriak (Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak) idatzitako "AGAUNTZA IBAIAREN GAINEKO PASABIDEAREN PROIEKTUA EGUNERATZEA, IKASTOLAREN ETA ELIZAREN ARTEAN, LAZKAON" onartzea. Horiek guztiek arautuko dute obren esleipena.

Hirugarrena.- Korporazioaren kontratatzailearen profilean argitaratzea deialdiaren iragarkia, baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiria, dagokion dokumentazio teknikoa, erabaki hau eta kontratazioa justifikatzeko memoria.

V.- GOIMEN ELKARTEARI 2023KO EKARPENA

GOIMEN Elkarteak horretarako bidalitako idatzi bidez, 2023ko udal ekarpenaren eskaera egin du.

Idatzi horretan esaten du GOIMEN Elkarteko Gobernu Batzordeak, 2022ko maiatzaren 24ean egindako bileran, 2023 urteko udal kuota proposamena onartu zela.

Hori horrela Lazkaoko Udalarari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 8.449,17 €-koa da.

Honen aurrean, tokiko gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, GOIMENi 2023ko udal ekarpen hau egitea onartu du.

VI.- URBAUNDIKO BASO-PISTAN LUR-JAUSIAREN PROIEKTUAREN ZIURTAGIRIA ETA LIKIDAZIOA

Lazkaoko Urbaundiko baso-pistan gertatutako lur-jausiaren ondoriozko konponketa lanen obra zuzendaritza daraman Roberto Gonzalez Ayastuy geologoak, OIHAN S.L.U. enpresakoak, lanen lehen obra egiaztagiria eta bakarra egin du.

Obra egiaztagiri honen zenbatekoa LAUROGEITA HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA ZORTZI euro ETA BERROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (91.808,57 €) gehi BEZari dagokion HEMERETZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI euro ETA LAUROGEI zentimo (19.279,80 €) da, guztira EHUN ETA HAMAIIKA MILA ETA LAUROGEITA ZORTZI euro ETA HOGIETA HAMAIIKA ZENTIMO (111.088,37 €).

Konponketa lanak Construcciones Iturrioz S.A. enpresa ari da burutzen.





Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, lehen obra egiaztagiri hau eta honen likidazioa aho batez onartu ditu.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 19-11-04 zenbakidun esped.: otsailetik aurrera etxeko laguntza zerbitzuko aportazio ekonomikoa aldatzea % 100etik % 15era jaitsez, beraien egoera ekonomikoa aldatu delako.
- 18-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja 2023ko otsailaren 23tik aurrera, egoitzan sartzeagatik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-007 zenbakidun esped.: Etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 83,25 €-ko dirulaguntza ematea urtarrietik otsailera eta hilean 135 €-ko dirulaguntza ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 90 da.
- 18-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 74,93 € ematea urtarrietik otsailera, eta hilean 121,50 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 81 da.
- 22-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 18-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 91,58 € ematea urtarrietik otsailera eta hilean 148,50 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 99 da.
- 16-01-008 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 56,43 € ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren % 61 da.
- 14-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 103 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 670 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.

- 22-01-007 zenbakidun esped.: :: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 89,73 € ematea urtarriletik otsailera, eta hilean 145,50 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 97 da.
- 16-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik otsailera, eta hilean 150 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 13-01-011 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik otsailera, eta hilean 148 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-016 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 42,55 € ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 92 da.
- 135 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik otsailera, eta hilean 150 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

Gazte Laguntzaileentzat bekak.-

2023. urterako Lazkaoko Gazte Laguntzaileen bekak eskatzeko deialdia egitea.

Beka hauen oinarri arautzaileak 2016ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuran onartu-ta-koak dira eta 2016-03-30eko GAOn argitaratu ziren.

- Eskerak aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 31arte izango da.
- Gehienera 2.000,00€ko diru laguntza onartuko da pertsonako.
- 2023 urteari dagokionean aurrekontua 4.000,00€koa izango da.

Orobione jubilatuta eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione jubilatuta eta pentsiodun elkarteari 2023. urteko diru laguntzaren lehenengo zatia ematea.

- Urteko ekintzen garapenerako eta oinarritzko egituraren funtzionamen-durako: 4.500,00 €

Ifarra Hegoa lankidetzaren programa.-

2023. urteko Ifarra-Hegoa laguntzaren deialdia egitea.

Ifarra –Hegoako lankidetzaren arautegia 1993ko abenduaren 21ean publikatu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.



- Eskerak aurkezteko epea deialdia GAOn argitaratzen denetik 30 egun.
- Aurrekontua: 20.000,00€
- Euskal Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza: 16.000€



VIII.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu du:

Euskara ikasten ari direnei.-

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 337 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

IX. UDALEKO INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOEN MANTENTZE ETA KONPONKETA ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuraren hasieran, deialdian agertzen ez den puntu hau jorratzeko beharra adierazi da premiazkoa dela eta. Hau honela izanik, batzarrak hau jorratzea onartu du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Udaleko instalakuntza elektrikoaren mantentze eta konponketa zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2022ko abenduaren 15ean eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 2 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

- Loyola Norte, S.A.
- Elecnor Servicios y Proyectos, S.A.U.

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Automatikoki baloratzen diren irizpideei dagokienean, hurrengo proposamenak egin dituzte aurkeztu diren enpresak:

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Automatikoki baloratzen diren irizpideei dagokienean, hurrengo proposamenak egin dituzte aurkeztu diren enpresak:

Enpresak Empresas	Ofizialaren eskulanaren prezioa Precio/hora mano de obra de oficial			Altxatzeko ekipoa Precio/hora equipo de elevación	Hileroko mantenimendu eta artapen lanengatik Precio mensual trabajos de conservación y mantenimiento	Hornidura materialaren fakturen gainko igoeraren % % Increm. s/fras. de suministro de material
	Lanordu arrunta H. laborales	Gaueko ordua H. nocturnas	Jaiegunetako ordua H. festivas			
LOYOLA NORTE, S.A.	25,00 €	27,00 €	32,00 €	05,00 €	1.200,00 €	1,00 %
ELECNOR, S.A.U.	28,15 €	33,00 €	36,00 €	30,00 €	1.200,00 €	3,50 %

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak aztertu ondoren, bi enpresen eskaintzak neurrigabeak edo anormalak izan zitekeela ondorioztatu zen, eta beraz kasu hauetarako legeak aurreikusten duen prozedura jarraituz justifikatu zitzatela eskatu zitzaion.

Horretarako emandako epean Loyola Norte S.A. eta Elecnor Servicios y Proyectos S.A. enpresek, beren eskaintzen justifikazioak aurkitu zituzten. Justifikazio hauek aztertu ondoren, Loyola Norte S.A. onartzea eta Elecnor Servicios y Proyectos S.A. kanpoan uztea erabaki zuen kontratazio organoak.

Beraz, onartutako enpresaren puntuazioa honako hau izan da:

Enpresak Empresas	Ofizialaren eskulanaren prezioa Mano de obra de oficial			Altxatzeko ekipoa Equipo de elevación	Mant. eta artapena Cons. y mant.	Igoeraren % % Increm.	Puntuak guztira Puntuación total
	L. arruntak H. laborales	Gaueko o. H. nocturnas	Jaiegunetako o. H. festivas				
LOYOLA NORTE, S.A.	20,00	07,50	07,50	10,00	35,00 €	20,00	100,00

Ondorioz, eta lehen sailkatua Loyola Norte S.A. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

Loyola Norte S.A.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak Loyola Norte S.A.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udaleko instalakuntza elektrikoaren mantentze eta konponketa zerbitzua Loyola Norte S.A.ri esleitzea, EHUN ETA HAMAR MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMABOST euro ETA HOGEITA HAMABI zentimo (110.155,32 €) gehi BEZari dagokion HOGEITA HIRU MILA EHUN ETA HOGEITA HAMABI euro ETA HIRUROGEITA BAT zentimoko (23.132,61 €) prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioetatik atzeratzen den prezioan.



LAZKAOKO
UDALA

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA